

KREDITUEN TRANSFERENTZIA ETA ONARPENA/KONBALIDAZIO LANESPERIENTZIAGATIK

ESKAERA EPEA:

- **web orrian argitaratutakoa**
- **Eskaria onartzeko ikasleak gutxienez 9 hilabeteko esperientzia profesionala justifikatu beharko du.**
- **Esperientzia profesionalagatik bakarrik kreditu hautazkoak eta Practicum I a aitortuko dira.**

DOKUMENTAZIOA:

- Gizarte Segurantzak **lan bizitzari** buruz emandako ziurtagiria.
- **Enpresen ziurtagiria**, hainbat alderdi jasota: izandako eginkizunak, egindako jarduerak eta horien iraupena, eta, ahal bada, lortutako gaitasunak
- Eskatzaileak **azalpen memoria bat** egin beharko du, bertan erreferentzia zehatza eginez eta justifikatuz lanbide esperientziaren bidez lortutako gaitasunen eta kredituak aitortzeko dakizkion irakasgaietako gaitasunen arteko egokitasuna.
- **Eskaria** bete eta idazkaritzan entregatu beharko da gainontzeko dokumentazioarekin batera.

Eskaera bete eta entregatu beharko duzu idazkaritzan.

EHU ko GRADUOKO IKASKETETAN KREDITUAK TRANSFERITZEKO ETA AITORTZEKO ARAUTEGIA

9. artikulua.– Titulu ezofizialak eskuratzeko aukera eskaintzen duten unibertsitateikasketetan egindako kredituak eta egiaztatutako lanesperientzia nahiz esperientzia profesionala.

1. Barneratutako gaitasun eta ezagutzen arteko egokitzapena aintzat hartuta, aitorgarriak izan daitezke titulu ezofizialak eskuratzeko aukera eskaintzen duten unibertsitateikasketetan egindako kredituak, baita egiaztatutako lanesperientzia nahiz esperientzia profesionala ere, baldin eta esperientzia horrek zerikusia badu egin nahi den titularen berezko gaitasunekin.
2. Lanesperientzia edo esperientzia profesionala eta unibertsitateikasketa ezofiziala aintzat hartuta aitortutako kreditu kopurua ezingo da ikasketaplaneko kreditu guztien % 15 baino handiagoa izan. Kreditu horiek aitortuz gero, ez da kalifikaziorik erantsiko, hortaz, ez dira kontuan hartuko espedientearen baremazorako.

Bilboko Hezkuntza Fakultatearen esperientzia profesionalagatik kredituak aitortzeko irizpideak:

- Araudiaren arabera, 36 kreditu aitortu ditzakegu esperientzia profesionalagatik.
- Ikasleak esperientzia profesionalak zerikusia duela tituluaren lantzen diren gaitasunekin ongi justifikatu beharko du. Horretarako, txosten bat idatzi beharko du aitortzeko eskatzen dituen kredituak lanesperientziaren bidez lortu dituela justifikatuz.
- Txostenak Dekanotzan aztertuko dira eta Akademia Antolakuntzarako Batzordeak azken erabakia hartuko du. Kredituak aitortzeko esperientzia profesionalaren ordu kopurua eta titulazioaren gaitasunekiko egokitasuna aintzat hartuko dira.